

HERNANI 2009-2010: LAN PROPOSAMENAri buruzko iritziak

Institutuko gurasoak abenduaren 16an egin genuen bileran ondoren azaltzen den idatzia eztabaidatu eta adostu genuen Hezkuntza Saialera bidaltzeko, Hernaniko ikastetxeetara bidali zuten “Lan Proposamena” dokumentuari eginiko ekarpen gisa.

Institutuko guraso bezala helburu nagusia hauxe indartzea da, eta era sinplifikatuan esanda, matrikula handitzea.

A) Dokumentuari buruzko oharrak eta iritziak

- 1.- Lehen Hezkuntzako ikasle kopuruak hartu eta proiektatu dituzte osorik DBHra.
- 2.- LHko ikasle guztiak inoiz ez dira joan herriko DBHra. Kopuru handi bat Donostiara eta Urnietara joaten da. Institutura joateko orduan joera hau areagotu egiten da. Aurkeztu diguten dokumentuan ez dute hau guztia kontuan hartzen, eta Hernaniko ikasle guztiak herrian bertan geldituko balira bezala azaltzen da.
- 3.- Atentziora ematen du Institutuko datuak ez agertzea dokumentuan. Ez dakigu Institutuko ikasleen kopuruaren bilakaera, nondik etorri diren, non ikasi duten DBHa, eta datu hauek interesgarriak iruditzen zaizkigu.
- 4.- Azpiegiturari buruz, iruditzen zaigu Hezkuntzak planteatzen duena ezin dela 2 urtetan lortu.

B) Eskaerak:

1.- Azterketa serio baten beharra

Hezkuntzak edota Udalak azterketa bat egin beharko lukete herri mailan, funtsezko informazioa bilduz .

- Zergatik jaisten da DBHko matrikula?
- Donostiara edo Urnietara joaten direnak, zergatik joaten dira? Zer bilatzen dute? Zeren falta sumatzen dute Hernaniko ikastetxeetan?
- Gaur egun Hernanin matrikulatuta dauden LHko gurasoek bere seme-alabak DBHra iristean Hernanin matrikulatzeko asmoa dute edo ez? Modu zehatzagoan, une honetan 6. mailan dauden gurasoek zer egiteko asmoa dute?
- Fusio prozesua nola ematen den izan al dezake zerikusirik erabaki horretan?
- Proiektu bateratu berri bat eginez gero, ikasle gehiago geratuko al dira herrian?
- Fusioa ikasleak batuz, hezkuntza proiektua aldeztetik sortu, adostu gabe, ikasle gehiago edo gutxiago joango dira Donostiara eta Urnietara?
- Nondik datoz azkeneko urtetan Institutuko ikasleak? Nolako kopuruak dauzkagu?
- Ez al du Hezkuntzak aurreikusi azterketa serio bat egin gabe eta proiektu sendo bat landu gabe ikasle gutxiago izateko dagoen arrisku erreala?
- Zer gertatuko litzateke Institutura ikasle gutxiago iristen badira?

2.- Hezkuntza Proiektua

Hezkuntzak egindako dokumentuan Hezkuntza Proiektuarekin lotutako aldagaiak ez dira kontuan hartu. Lehenbizi ikasleak batzea proposatzen du, ondoren Hezkuntza proiektua.

Ez al luke alderantziz izan behar? Lehenbizi, proiektu bateratu eta berri baten inguruan bildu irakasleak eta gurasoak, ilusioa piztu eta ondoren matrikulazio bateratua?

Hezkuntza saila prest azaldu da liberazioak emateko hezkuntza proiektua lantzeko, eman ditzala ikasleak batu aurretik, eta jar gaitetzen eskola komunitateko eragile guztiak lanean.

Hau da: Hezkuntza Proiektu berri bat sortu behar dugu, irakasle eta gurasoen artean adostutakoa, denona izango dena, eta familiak gazteak herrian matrikulatzera bultzatuko dituen.

3.- Azpiegitura

Behar diren azpiegiturak, eraikuntzak, e.a. Hezkuntza Proiektu berria aurrera eramateko bukatuta egon beharko dira, edo dezente aurreratuta bai behintzat. Are gehiago ikusita zenbat lan dagoen aurretik egiteko..

Ondorioak laburrean:

1. Institutuak baietza eman zion fusioari
2. Eman ditzagun urratsak modu logikoago batean
3. Lehenengo Hezkuntza Proiektua: ahal dela denentzat berria
4. Bigarrenez eta lehenengoarekin batera, azpiegiturak sortzeko makineria martxan jarri, jakin badakigu zenbat denbora behar den eta.
5. Proiektua prest dagoenean (epeak jarri behar, formazioa, Berritzegunearen laguntza?), ikasleen matrikula bateratua.
6. Ikasleek eraikinez eraikin eta egoera prekarioan emango duten denbora motzagoa izango da.

Eskaera hauek aurrera ateratzeko Hezkuntzatik egindako ikasleen fusioa atzeratzea eskatzen dugu..

Hernanin, 2009ko abenduaren 2an